

**OÑATIKO UDALAREN ETA ASOCIACIÓN LAGUN LEKU DE JUBILADOS DE OÑATI
ELKARTEAREN ARTEKO ELKARLANERAKO 2025-2026 HITZARMENA,
DIRULAGUNTZA ZUZEN IZENDUNA BIDERATZEKO**

BILDU DIRA

Alde Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI, esku hartzen du Oñatiko Udalaren ordezkari gisa.

Bestetik, MARIA DOLORES UNZURRUNZAGA POSADA, ASOCIACIÓN LAGUN LEKU DE JUBILADOS DE OÑATI (G75108506) elkartearen izenean eta haren ordezkari gisa (hemendik aurrera onuraduna),

Batak besteari hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna duela aitortuz, eta kontutan hartuta jarraian azaltzen diren

HELBURUAK

Lehenengoa.- Lankidetzat hitzarmen honen helburua dela onuradunaren alde bideratzea Oñatiko Udalak indarrean duen aurrekontuko 1 0391.481.924.00.01 2025 (5707) diru-ataleko dirulaguntza hau: OÑATIKO UDALAREN ETA ASOCIACIÓN LAGUN LEKU DE JUBILADOS DE OÑATI ELKARTEAREN ARTEKO ELKARLANERAKO HITZARMENA, DIRULAGUNTZA ZUZEN IZENDUNA BIDERATZEKO. Era berean, xedea du onuradunak bere gain hartzen dituen baldintzak eta konpromisoak ezartzea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Asociación Lagun Leku de Jubilados de Oñati familia-izaerako irabazi asmorik gabeko elkarte da. Larraña auzoa 16 zk.-an, Eltzia eraikinean, du egoitza eta Nagusien Topagunea deritzon espazioan eramaten ditu aurrera jarduerak. Bere helburuen artean ditu: erretiratu, pentsiodun eta elbarritu guztien topagune izatea; mota guztietako kultur eta aisialdi jarduerak antolatzea; horien guztien batasuna eta lankidetzat sustatzea.

Hirugarrena.- Oñatiko Udalaren helburua da ikuspegi komunitariorik auzo eta herriko bizi baldintzak hobetzeko eta gizarte inklusiboago eta kohesionatuagoa eraikitzeko lanean ari diren ehun sozialeko eragileei erraztasunak ematea; eta zehazki, kontuan izanda udalak ez duelako nahikoa baliabide bere kabuz helburu hori betetzeko.

Laugarrena.- Bi erakundeek helburuak bat egiten dute eta hitzarmen honen bidez 2025eko irailetik 2026ko abuztua bitartean elkarlanean jarduteko konpromisoa adierazten dute, Eltzia Nagusien Topagunez baliatuta komunitatearen onerako etengabeko akonpainamendua emateko.

Bosgarrena.- 2025eko irailaren 17ko dataz, Asociación Lagun Leku de Jubilados de Oñati elkarteak (G75108506), Maria Dolores Unzurrunzaga Posada ordezkari, dirulaguntza eskaera egin dio Udalari (4999 sarrera zk):

"Solicitamos subvención (16.000€) para poder continuar con las actividades y dinamización del Nagusien Topagunea en Lagun leku, ubicado en Eltzia, con el objetivo de favorecer la socialización, relación, participación y acompañamiento a personas mayores del barrio y de Oñati en general, a través de actividades y talleres de diversa índole entre Septiembre de 2025 y Julio 2026."

Seigarrena.- Oñatiko Udalak Asociación Lagun Leku de Jubilados de Oñati elkarteari bideratuko dion dirulaguntzak elkartearen eta udalaren arteko elkarlanean dauka oinarria.

Zazpigarrena.- 2025 urteko udal aurrekontu orokorrean dirulaguntza zuzen izenduna ematea aurreikusita dago:1 0391.481.924.00.01 2025 (5707) diru-atala.

Zortzigarrena.- 2025eko irailaren 16an Partaidetza eta Garapen Komunitarioko informazio batzordeak eskaera aztertu eta dirulaguntza emateko baldintzak betetzen direla ondorioztatu du; horrenbestez, Asociación Lagun Leku de Jubilados de Oñati elkarteari dirulaguntza zuzen izenduna ematea proposatzen du informazio batzordeak aho batez, eta hura bideratzeko Oñatiko Udala eta Asociación Lagun Leku de Jubilados de Oñati elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartzea eta sinatzea.

Horrela beraz, azaldutako aurrekariak kontuan hartuta, erakunde biek:

HITZARTZEN DUTE:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak 16.000,00 €-ko dirulaguntza emango dio Asociación Lagun Leku de Jubilados de Oñati elkarteari, 1 0391.481.924.00.01 2025 (5707) diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura, Eltzia Nagusien Topagunez baliatuta komunitatearen onerako etengabeko akonpainamendua emateko.

Bigarrena.- Elkarteak aipatu xederako gastuak finantzatzeko erabili ahal izango da dirulaguntza, beti ere jarraian zehazten diren baldintza eta mugak aintzat hartuta.

Hirugarrena.- Datu bitartekaritza

Oñatiko Udalak, NISAE nodoaren bidez –euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa–, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horrez gain, dirulaguntza hauen tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak

eskatzen ez di- tuen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edo- zein administrazioari emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Laugarrena.- Dirulaguntza emateko baldintzak egiaztatzea

Udalak zuzenean kontsultatuko du, NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar den informazioa, interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat. Zehazki, ASOCIACIÓN LAGUN LEKU DE JUBILADOS DE OÑATI elkarteari buruzko informazio hau kontsultatuko da:

- Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharrak egunean izateari buruzko kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren diruzaintza orokorra: GSDOrekiko obligazioen ordainketak egunean izatearen kontsulta.

Bosgarrena.- Dirulaguntzaren ordainketa egin ahal izateko, onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Erakunde eskatzailearen banku-kontuaren titularitatearen frogagiria, eskaera egin duen erakundearen identitatearekin bat etorri behar dena.
- Onuraduna DLOren 13.2 artikulua aurreikusten dituen debekuetan ez dagoela sartua dion erantzukizuneko aitortpena edo deklarazioa.
- NISAE Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzeari buruzko ziurtagiriak, Udalari hori egiaztatzeko baimena ukatu baldin bazaio edo NISAE nodoaren – euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragingarritasunerako nodoa– elkarreragingarritasun zerbitzuen katalogoan kontsulta egin ezin bada.

Seigarrena.- Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako dirulaguntzekin, beti ere, gain-finantzazioa gertatzen ez bada. Kasu horretan udalak emandako dirulaguntza zenbatekoa gutxituko da gastu eta sarreraren arteko diferentzia orekatu arte. Gain-finantzazioa gertatzen bada elkarteak izango du udalari jakinarazteko eta dirulaguntza itzulketa egiteko betebeharra.

Zazpigarrena.- Dirulaguntza hau berezia denez eta programaren bideragarritasuna bermatzeko, ordainketa aurreratua ezartzen da, kontuan hartuta onuradunak eskura dituzten baliabide ekonomikoen izaera eta muga, zein programa presazkoa eta berehalakoa dela, abenduaren 27ko 12/2007 Legearen 36.1 artikuluekin bat etorriz.

Horrenbestez, Ordainketa aurreratua bi zatitan egingo da, era honetara:

Dirulaguntzaren %75 hitzarmena sinatzen den momentuan, 1.go aurrerakin moduan, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

Dirulaguntzaren gainontzekoa, gehienez ere %25a osatu arte, aurreikusitako gainontzeko jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa, eta beti ere, beti ere, eskabidearekin batera dirulaguntzaren helburuen eta jardueren aurrerapen maila eta behin betiko kronograma jasotzen dituen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea ezinbestekoa izango delarik. Eskaera, 2025eko urtarrilaren 1etik 31ara bitartean egin beharko dio elkarteak Udalari, egoitza elektronikoaren bidez.

Zortzigarrena.- Dirulaguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen zurrizteko onuradunak duen epea 2026ko abuztuaren 31ean amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ZURIGARRIA delakoaren bidez egingo da, honako dokumentu hauek izango dituen:

- Memoria ekonomikoa, eta bertan jasoko dira dirulaguntzaren gastuen zerrenda sailkatua, ordenatua eta lotutako zenbatekoak.
- Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan horien balio berekoak diren frogagiriak eta dokumentuak.
- Erantzukizuneko aitorpena, non adieraziko baita aurkeztutako fakturak ez direla erabili eta ez direla erabiliko beste dirulaguntza batzuk justifikatzeko.

Gastuak egiaztatzeke oinarritzko dokumentazioa faktura da.

Aurkeztutako fakturak onargarriak diren ala ez zehazteko 1619/ 2012 Errege Dekretuak, azaroaren 30ekoak, fakturazio-betebeharrak arautzeko erregelamendua onartzen duenak, 6.1. artikuluan fakturen edukiei buruz dioena jarraitu beharko da. Fakturak edo pareko agiriekin zenbakiak izango dituzte, memoria ekonomikoko zerrendan adierazitako zenbakiei jarraikiz.

Bederatzigarrena.- Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak deklaratzeko du bertan ezarritako betekizun guztiak bete egiten dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak goitik behera onartzen dituela.

Aldi berean, izenpetzen duenak adierazten du Oñatiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak bere onepenez eman dizkiola eta datu horiek Oñatiko Udalak behar bezala baimenduta dituen fitxategietan sartzeko eta tratamendu automatizatua emateko baietza ematen duela.

Sinatzen duenak deklaratzeko du, hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela, ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatu duenak baimena ematen dio Oñatiko Udalari:

a) Izaera pertsonaleko datu horiek udal kudeaketarako bakarrik erabiltzeko; hala ere, beste Administrazio Publiko batzuei edo beste inori laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie datuok 3/2018

Lege Organikoan, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, aurreikusitako kasuetan.

b) Hitzarmen honen xede den dirulaguntza zuzen kudeatzeko garrantzizkoa den informazio guztia eskuratu ahal izateko, udal sail eta atal guztietan eta beste administrazio publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Azkenik, Hitzarmen hau izenpetzen duenak deklaritzen du berak eman dituen datuak eskuratzeko aukeraren inguruko argibide guztiak eman zaizkiola eta, hala bada, esandako Lege horrek ezarritako moduan, datu horiek zuzentzeko, datuen aurka egiteko edo ezabatzeko eskabidea egiterik ere baduela, Oñatiko Udalean datuen tratamenduari buruzko arduradunarengana zuzenduta: Oñatiko Udala, Foruen Enparantza, 1; 20.560, Oñati (Gipuzkoa). Eskabidea egiteko datu hauek eman behar ditu: izen-abizenak, helbidea jakinarazpenak bidaltzeko, eskaera zehatza, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Hamargarrena.- Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auzigaiak, hitzarmenak berak izaera juridiko-administratiboa duenez, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzio-ordenaren menpe geratuko dira.

Eta alde biak hitzarmen honetan jasotakoa onartzen dugula adierazteko, hitzarmen hau sinatzen dugu behean adierazitako egun eta lekuan.

OÑATIKO UDALEKO ALKATEA

Izaro Elorza Arregui

ASOCIACIÓN "LAGUN-LEKU" DE JUBILADOS
DE OÑATI

Maria Dolores Unzurrunzaga Posada



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	Hitzarmena Lagun Leku-Udala 2025-2026
CSV/EKS:	SINA5b6686e2-7924-4174-916a-350b2e7a2c22